

# Compte rendu du Conseil Municipal du 21 décembre 2020

## 2020ko abenduaren 21eko Herriko Kontseilua

Hor zirenak: DARGUY, DUHALDE, ETCHEVERRY, OXARANGO, PEREZ, SABALOUÉ andereak, eta BARBIER, BARNECHE, BISCAY, GASTAMBIDE, HERNANDEZ, MONGABURE, OTEIZA, PARACHOU jaunak.

Ezin etorria jakinarazia zutenak : ECHEVERTZ anderea

Bilkurako idazkaria: SABALOUÉ Virginie anderea

### **Auzapezaren hitza kontseilua hasi aitzin**

***Bilkura hau hasten dut pena bihotzean. Xehetasunetan sartu gabe, denek dakizue Aiherrak memento gaitza bizi duela. Herritar zenbait nahasmendu handitan dira heriotza edo eritasunarengatik. Aiherra triste da, denek elgarrekin aitzinerat joan behar dugu... Milesker***

Aiherrako Herriko Kontseilua 2020ko agorrilaren 21ean bildu zen eta hau deliberatu:

### **1. Aurrekontu nagusiari buruzko aldaketa erabakia**

INBESTIMENDUAK	
<b>GASTUAK</b>	
2315 – Herriko argiak – 176. operazioa	-16 000
2315 – Plazako errebotea – 153. operazioa	-1 000
2182 – Garraioko materiala	17 500
2312 – Lursailen antolamendua eta antolaketa (harrobia) – 178. operazioa	5 000
21534 - Muntadurak, material eta tresneria teknikoak – 141. operazioa	3 500
2313 – Eraikitzeak (merkataritza egoitza) – 173. operazioa	9 000
OROTARA	18 000
<b>IRABAZIAK</b>	
775 – Immobilizazio eskualdatzeen produktuak (autobus salmenta)	13 800
1326- Dirulaguntzak – Tokiko beste eraikin publikoak – 175. operazioa	4 200
OROTARA	18 000

Aho batez onartua.

### **2. Erabilera numerikoen batzeko hitzarmena Euskal Hirigune Elkargoarekin**

Etcheleku jaunak oroitarazi du 2020ko otsailaren 1eko deliberazioaren ondotik Euskal Hirigune Elkargoak hitzarmen bat izenpetu duela La Fibre64 Sindikatu Mistoarekin zerbitzu numeriko programa baten hedatzeko.

Kooperazio alor hori Euskal Hirigune Elkargoaren kide diren herriei irekia da, zerbitzu hauek guzietarako edo parte baterako:

- **Datuen Babeserako Araudi Nagusiaren (DBAN) arabera ezartzea:**  
DBANen arabera ezartzeko laguntza, ordezkari postu bat plantan ezarriz datu batuen babeserako La Fibre64 Sindikatu Mistoaren eta haren kideen artean: La Fibre64 Sindikatu Mistoa Aiherrako datuen babeserako ordezkari izendatu da.
- **Eskaera publikoaren desmaterializatzea:**  
Erosle profil baten esku ezartzea AMPA merkatu publikoen plataforman.
- **Legezketasun kontrolari bidalketaren desmaterializatzea:**  
Aiherrako ekintza eta jario desmaterializatuertarako teletransmisio gailu baten esku ezartzea.
- **Inklusio numerikoa:**  
Laguntza horren barne: inklusio numerikoen tokiko sareen ingeniariak, koordinazioa eta animazioa; lekuen eta lurraldeko inklusio numeriko zerbitzuen kartografia; eta ere baliabide gune bat laguntzaile guzientzat.
- **Webinarrak:**  
Gai batzuen inguruko webinarrak (web-mintegiak) Elkargoaren kide diren herrietako hautetsi eta langileen esku ezartzea (adimen artifiziala, datu irekiak, nortasun numerikoa...).

Zerbitzu numeriko horiek dohainik dira herrientzat batze-hitzarmen baten bidez, eta hitzarmen hori adierazi gabe luza daiteke urte bat gehiagorako.

Herriko Kontseiluak onartu du batze-hitzarmenaren izenpetzea.

### **3. Laneko higie eta segurtasunaren alorreko ikuskaritza – Hitzarmenaren berritzea**

Lurraldeko Funtzio Publikoko laneko higieari eta segurtasunari buruzko eta laneko eta prebentziozko medikuntzari buruzko 1985eko ekainaren 10eko 85-603 dekretu aldatuak aurreikusten duen bezala, laneko higiearen eta segurtasunaren ikuskaritza eginen duen langile baten izendatzea beharrezkoa da elkargo guzietan.

Horra ikuskariaren eginbeharrak:

- araubidearen baldintzak betetzen direla egiaztatzea;
- laneko higiea eta segurtasuna, eta lan arriskuen prebentzioa hobetzen ahalko dituen neurri ororen proposatzea;

Herriko Kontseiluak onartu du CDG 64i mandatua ematea.

### **4. Lurraldeko langileen geriza soziala – Estatutu-asurantzaren kontratuen berritzea:**

Elkargo publikoek estatutu-betebeharrak dituzte CNRACLren kide diren haien funtzionarioen eta Gizarte Asurantzako araubidearen mendearen diren langileen geriza sozialari begira.

Arrisku horien kontrako bermea hartzeko, elkargoek asurantzaren kontratu bat har dezakete.

Kudeaketa zentroak konkurrentziarako deialdia egin du arriskuak batzen dituen talde kontratu baten ukaiteko.

Kudeaketa zentroak, Eskaera Publikoaren Kodearen araberrako prozedura plantan ezarri ondoan, CNP Asurantzaz hartzea erabaki du asurantzaz etxe gisaz eta SOFAXIS kudeatzaile artekari gisaz.

Bi kontratu proposatu dira:

□ **CNRACLren mendean diren funtzionarioei** doakien kontratua:

Asurantzaz tasa % 5,93koa da eta **berme guziak** barne ditu: Heriotza + Zerbitzu istripua eta eritasun profesionala (CITIS) + Eritasun luzea eta iraupen luzekoa + Amatasuna-Adopzioa-Aitatasuna eta hurraren errezibitzea + Eritasun arrunta 15 eguneko frankiziarekin lan geldialdi bakoitz eritasun arruntaren kasuan bakarrik + Gerla elbarritasuna

□ **Gizarte Asurantzako** araubidearen mendean diren **langileei** doakien kontratua (hiru hilabeteaz 150 oren baino gehiago edo gutiago egiten dutenentzat):

Asurantzaz tasa % **0,9koa** da eta **berme guziak** barne ditu: Lan istripua eta eritasun profesionala + Eritasun larria + Amatasuna-Adopzioa-Aitatasuna eta hurraren errezibitzea + Eritasun arrunta 15 eguneko frankiziarekin lan geldialdi bakoitz eritasun arruntaren kasuan bakarrik

Elkargoaren onetan da mutualizazio urraspide horretan sartzea kontratuak eskaintzen duen berme maila ikusirik (arriku guziak estaliak dira, 15 eguneko frankiziarekin eritasun arruntaren kasuan bakarrik).

Kontratu berriak **2021eko urtarrilaren 1etik** goiti indarrean dira **5 urterako**, eta tasak 3 urterako bermatuak dira.

Herriko Kontseiluak onartu du Kudeaketa zentroak proposatu bi talde-kontratuen hartzea 2021eko urtarrilaren 1etik goiti, 5 urterako.

### **Gainerako gaiak:**

Telefono-zutoinen ordezkatzeta Etxegaraiko bidean, Fermineneko bidean, Mentaberriko bidean, Zabaltzako bidean, Garraldako bidean eta Mendiko bidean. Berri ona, berant egina izanik ere.

5Garen gaia. Aihertar talde bat teknologia berri horren baldintzez edo arazo bereziez jabetu da. Antena batzuk instalatzeko proiektuak bidean omen dira. Auzapezak galdegin dio Herriko Kontseiluari giaz jabetzeko ondoko bilkuretan iritzi baten adierazteko gisan.

Bakegileak, urtarrilaren 9a - ARG! DUGU! Bake bidea.

Auzapezak hedatu du urtarrilaren 9an Baionan eginen den mobilizaziorako deialdia, preso politikoen hurbiltzea eta libratzea galdatzeko eta ahal bezainbat kontseilari joatea galdegin du.

Herriko kazetaren banaketa + Eguberriko oparia adinekoei. Urte bukaera honetan herriko kazeta banatuko dugu aihertarrei, baita ere oparitto bat adinekoei.

Berritasuna: 2021eko agiantzak birtualean proposatzera entseatuko gara urtarrilaren 24an, igandearekin, 10:30ean. Elkarretartzeko manera bakarraz da...

Bilkura 21:45ean bururatu da

Auzapeza

Arño Gastambide